



2. ¿Nola egiten du?

2.1 Adimen lehiakorreko prozesua

1. Sarrera

Trebakuntza-pilula honetan, adimen lehiakorreko prozesu klasiko bat prozesu zikliko baten modura aurkezten da, eta, hala, prozesua une bakoitzean informazio-beharretara egokitzeko eta haien arabera aldatzeko beharra adierazten da.

2. El proceso de Inteligencia Competitiva.

Irudi honetan, adimen lehiakorreko prozesuaren etapak adierazten dira.




Figura 1. El Adimen Lehiakorreko prozesua

1.1 Informazio-beharren definizioa

Fase honetan, erakundeak zaintzako faktore kritikoak definitu behar ditu. Hau da, zer gairi buruzko informazioa eduki behar duen azken garapenei eta aurrerapenei dagokienez; sortzen ari diren teknologiak, gaur egungo lehiakideak eta lehiakide izan daitezkeenak, merkatuen eta inguruaren garapena, etab

1.2 Informazioa lortzeko sistema

Behin zaintzako faktore kritikoak definituta, informazioa emango diguten iturriak zein diren identifika daiteke. Horrez gain, haietako bakoitzetik etorriko den informazioa berrikusteko eta biltzeko estrategiak eta metodoak definituko ditugu. Gaur egun, Interneti eta monitorizatzeko hainbat tresna informatikori esker, zeregin horietako asko automatizatu egin daitezke.

1.3 Lehen mailako informazioa tratatzea eta analizatzea

Orain, jasotako informazio eta datu guztiak analizatu eta laburbildu behar dira, zaintzako gure faktore kritikoentzat oso garrantzitsuak direnak hautatu eta haien artean zer harremana sor daitezkeen bilatu. Eta ez da beti lan erraza izaten. Azken finean, informazioa antolatu eta inguruaren egoera erraz interpretatzeko testuinguru batean jartzea da. Aurreko fasean IKTek gero eta gauza gehiago automatizatzeko aukera eman badute ere, fase honetan oraindik ere funtsezkoa da giza analistaren ekarpena.

1.4 Emaitzak komunikatzea

Hainbat euskarritan egin daiteke: euskarri elektronikoak, paperezkoak edo aurrez aurreko bilerak.

1.5 Zaintzako emaitzak erabiltzea

Fase hau erabakigarria da zaintza-sistemarako, zeina erakundeak erabaki egokiak hartzeko tresna gisa erabili behar baitu, barne-irizpideak nahiz zaintza-sistemaren bidez inguruneaz jasotako guztiak kontuan hartuz, eta, hala, erabakiak hartzeko unean kezka txikituz.

1.6 Feedbacka eta beharrak berriro definitzea

Azkenik, kontuan hartu behar da zaintza-lana ziklo jarraitu bat dela eta aldizka ebaluatu egin behar dela, dagozkion aldaketak egiteko. Horrek zaintzako faktore kritikoei eragiten die —eta litekeena da horiek denboran aldatu izana edo sistemak berak egoera berriak hauteman izana— baita sistemaren beraren funtzionamenduari ere.